



**EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN
PLAN OROKORRA
2014- 2019**

**2014ko uztailetik 2015eko ekainera bitarteko
ebaluazioa**

2015/11/09

AURKIBIDEA

SARRERA

ARRISKU ETA MEHATXUAK EUSKADIN

ARDATZEN-ARRISKUEN-JARDUERA ILDOEN ARTEKO HARREMAN-TAULA

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- Jarraipenerako adierazleak

SARRERA

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorren helburu nagusia pertsonen, ondasunen eta ingurumenaren segurtasuna bermatzea da.

Helburu hori lortu ahal izateko, jendeak eskubide eta askatasunak bete-betean erabil ditzan, eta herritarrak bakean, ongizatean eta gizarte kohesionatuan bizi daitezen, plan honek horretarako beharrezkoak diren baldintzak sustatu eta horretarako dauden oztopoak ezabatu behar ditu. Arriskuak, nahita edo nahi gabe sortutakoak, ahalik eta gehien murriztea da horretarako bidea eta, arriskuak diogunean, jendearen eskubide eta askatasunak, herritarren segurtasuna edo horien ondasunena, eta denon ondarearen segurtasuna asaldatzeko arriskuak ditugu gogoan.

Jarraitu nahi den segurtasun-estrategiak Europar Batasunak promulgatutakoan dauden printzipio eta helburuen isla izan nahi du. Horretan Askatasun, Segurtasun eta Justizia Esparru bat sortzeko konpromiso sendoa azaltzen da, etengabe aldatzen dabilen mundu honetan aurre egin behar izaten diegun arrisku eta mehatxuei aurre egiteko. Konpromiso horren ondorioz, hainbat erronkari heldu behar diegu, besteak beste, eskubideak eta askatasunak babestea, segurtasun-faltaren kausei aurre egitea, prebentzioari eta aurrea hartzeari lehentasuna ematea; eta horretarako, babes publikoan eginkizunen bat edo beste betetzen duten arlo guztiak inplikatu behar dira.

Hori dela eta, Plan hau Sailaz gaindikoa da. Gobernuaren plan bat da, Eusko Jaurlaritzako arloei ez ezik, gainerako erakundeei ere eragiteko diseinatuta baitago. Horrela, segurtasun integraleko sistema bat ezarri nahi da, hau da, sektore askotara iritsiko den sistema zabal eta oso bat. Plan horrek barne hartuko ditu sektore hauek guztiak: herritarren segurtasuna zein segurtasun zibila, bide segurtasuna eta segurtasuna beste arlo batzuetan ere, esaterako, ikuskizun publiko eta jolas jardueretan. Horren guztiaren helburua da gaur egungo eta etorkizuneko mehatxuei aurre egitea, herritarren bizitzan, segurtasunean eta ongizatean zuzeneko eragina daukaten horiei, eta baita hondamendi naturalei eta giza jarduerak sortutakoei ere.

Segurtasun publikoaren sistemaren printzipioen artean hauek daude: arriskuen eta mehatxuen prebentzioa, herritarrek dituzten beharrezkoen ezaguera oinarri, herritarrak babestea eta zerbitzu publikoa beharrezko haiei egokitzea, arazoak hauteman eta identifikatzea, erantzuna prestatzea eta emaitzak ebaluatzea. Horren ondorioa da erresilientzia indartu behar dela, hau da, sistema batek eta bere osagaiak daukaten gaitasuna hondamendi, krisi edo bestelako gertakarien ondorioak aurreikusteko, murrizteko, eta egokitzeko edo ondoren bere onera etortzeko modu egoki eta eraginkorren. Erresilientzia-gaitasuna erakundeetan garatu behar da gizartearen maila eta arlo guztietan. Sistemen ikuspegia hartzea eta konponbide multidimentsionalak identifikatzea erresilientzia garatzeko funtsezko elementuak dira.

Plan honek erresilientzia printzipio estrategiko gisa sartu du, erakundeak eta herritarrak aurkako edozein gertakariren aurrean prest egon daitezen.

Segurtasun sistema integralaren haritik, segurtasun-politika bat sortu da, hiru zutabe estrategiko hauetan sustatuko dena:

- 1.- Herritarrengana gehiago hurbiltzea, betiere kontuan hartuta sistema osoa herritarren ardatzaren inguruan egituratu behar dela.
- 2.- Giza baliabide eta baliabide teknologikoak efikazia eta efizientzia handiagoz erabiltzea.
- 3.- Lankidetzaren handiagoa gizarte-, erakunde- eta polizia-agente guztien artean.

Planean jasotzen diren ardatz eta ildo estrategikoak hurrengo taulan daude:

Ardatzak	Ildo estrategikoak
1. ardatza: Herritarrentzako zerbitzua	1.1.Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik 1.2.Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 1.3.Herritarrei ematen zaion arreta eta polizia- estabiezimenduen segurtasun-baldintzak hobetzea 1.4.Ikuskizun eta jolas-jardueretako lokalen segurtasuna hobetzea 1.5.Indarkeria, arrazismo-espresioak, xenofobia eta, oro har intolerantzia-jarrerak desagerraraztea kirolean 1.6.Lankidetzaren eta koordinazioaren kanpo-agenteekin 1.7.Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa
2. ardatza: Plangintza	2.1.Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik 2.2.Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 2.3.Ertzaintzaren kudeaketara gaineratzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetzaren, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko 2.4.Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa 2.5.Babes Zibil eta Larrialdien arloko plangintza eguneratzea 2.6.Euskadiko Joko Sistemaren Ikuspegi Integrala 2.7.Datuak eta informazioa jasotzea eta trukitzea 2.8.Euskadiko bide-segurtasuneko plan estrategikoa
3. ardatza: Koordinazioa	3.1.Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal eraginkor batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 3.2.ildo estrategikoa Ertzaintzaren kudeaketara gehitzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetzaren, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko 3.3.Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa 3.4.Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren zerbitzuen eta sistema ahalbidetzen duten erreminten koordinazioa hobetzea 3.5.Euskal Polizia Koordinatzeko Sistema bat ezartzea (Ertzaintza eta Tokiko Polizia/Udaltzaingoa) 3.6.Osagarritasuna beste administrazio batzuekin 3.7.Ekinbide Segurtasun Sistema Hobetzeko Herritarren Ekimenetarako Bulegoa antolatzea eta kudeatzea 3.8.Segurtasun Publikoaren Estatistika Organo Espezifikoa kudeatzea
4. ardatza: Prestakuntza	4.1.Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa 4.2.Larrialdietako eta meteorologiako arloan prestakuntza herritarrei eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren zerbitzuei 4.3.Jokoaren eta ikuskizunen arloan barne- eta kanpo-prestakuntza 4.4.Hezkuntza eta prestakuntza
5. ardatza: Komunikazioa	5.1.Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik 5.2.Ertzaintzaren kudeaketara gehitzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetzaren, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko 5.3.Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa 5.4.Herritarrekin komunikatzeko sistema eta prozedurak eguneratzea 5.5.Salaketak eta baimenak izapidetzea 5.6.Herritarrentzako informazioa

ARRISKUAK ETA MEHATXUAK EUSKADIN

Planak erantzun nahi dien arrisku eta mehatxuak, beren jatorriaren arabera, hiru motatakoak izan daitezke:

- a) Naturalak: geologia- edo klima-faktoreak dira arrisku edo mehatxuen eragile zuzenak, eta ez giza presentzia edo giza jarduerak.
- a) Antropikoak: giza jarduera edo ekintzen ondorio direnak.
- a) Teknologikoak: arrisku antropikoak dira, garapen teknologikoaren eta teknologien aplikazio eta erabilera esanguratsuaren ondorioak.

Dena den, arriskuaren tipologiaz gaindi, helburua da EAEko segurtasunari bereziki eragiten dioten arriskuak eta mehatxuak ezartzea, jarduteko ildo estrategiko zehatzak ezarri ahal izateko.

Horregatik, Euskadiko Babes Zibileko Planean- LABI- jasotzen diren arriskuen analisia eta Euskadin dagoen delinkuentziaren analisia kontuan hartuta, hainbat arrisku eta mehatxu identifika ditzakegu, Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasunean eragin handiena dutenak; Izan ere, gerta daitezten edo gertatu osteko ondorioen larritasuna ekidin, edo ahalik eta gehien murriztu nahi bada, horiek aginte publikoetatik kontrol, arreta eta prebentzio gehiago eskatzen dute. Arrisku eta mehatxu horiek hauek dira:

- Terrorismoa
- Zibermehatxuak
- Delinkuentzia
- Larrialdiak eta hondamendiak
- Oinarrizko zerbitzuen eta azpiegitura kritikoen urrakortasuna
- Indarkeria Sexista
- Bideetako ezbehar-tasa

Dena den, kontrolatu beharreko arriskuak eta mehatxuak identifikatu ez ezik, arrisku edo mehatxu berriak sor ditzaketen faktore indartzaile batzuk ere kontuan hartu behar dira. Faktore horiek arriskuak eta mehatxuak biderkatu eta larriagotu ditzakete, eta beraz, faktoreen bilakaerari buruzko aurreikuspenak egin beharko dira eta ekintza estrategiko eraginkorrenak zehaztu. Faktore horiek izan daitezke, besteak beste, pobrezia, desberdintasunak, muturreko ideologiak edo teknologia berrien erabilera kaltegarria orokortzea.

ARDATZEN-ARRISKUEN-JARDUERA ILDOEN ARTEKO HARREMANEN TAULA

Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorrak segurtasunari buruzko ikuspegi integrala aurkeztu nahi du eta horretarako, ezarritako bost ardatz estrategikoen ikuspegitik, eta arrisku eta mehatxuen analisiaren emaitzak oinarri hartuta, helburuak eta jarduera-ildoak zehazten ditu.

Hautemandako arrisku eta mehatxuei aurre egiteko, jarraitu beharreko estrategiaren oinarria izan behar da hauek hautematea eta prebenitzea: delinkuentzia eta hondamendi naturalak, eta baita giza jarduerak sortutakoak ere; betiere ikuspegi proaktibo batetik, kalte estrukturalaren, ekonomikoaren eta giza kaltearen ondorioak murrizteko helburuarekin, ekintza deliktiboari berari begiratu ez ezik, arazoaren sorburuari ere kasu eginez, eta arazoaren fase guztiei ekinez: prebentzioa, babesa, erantzuna eta onera ekartzea.

Segurtasun-politikek ikuspegi integral bat hartu behar dute, erakunde, profesional eta herritar guztiak barne hartzen dituen, eta beste sektore batzuekin ere lankidetzan aritu beharko dute, hezkuntzarekin esaterako, portaera deliktiboak gara daitezen ekiditeko helburuarekin.

Ikuspegi hori zabala, pragmatikoa, malgua eta errealista izan behar da, une oro errealitatera egokitzen dena. Ikuspegi horrek herritarrengan eragina izan dezaketen eta beraz, segurtasun arloko arazoak sor ditzaketen arriskuak era mehatxuak kontuan hartu behar ditu, eta beti ahalegina egin beharko du herritarrek segurtasun maila altuena izan dezaten bermatzeko.

Arriskuei buruz egindako azterketa zein markatutako helburuak lortzera eta beraz, Euskadiko segurtasuna bermatzen lagunduko diguten emaitzak lortzera bideratuta dauden ildo estrategikoen definizioa ere oinarri hartuta, jarraian, hautemandako arrisku eta mehatxu bakoitzerako, ESPPO egituratzen duten ardatzen arabera sailkatuta, jarduera ildoen ikuspegi bat aurkezten da. Horiek guztiak garatu dira aztertzen ari garen aldian zehar.

ARDATZEN-ARRISKUEN-JARDUERA ILDOEN ARTEKO HARREMANEN TAULA

		ARRISKUAK						
		Terrorismoa	Zibermehatxuak	Delinkuentzia	Larrialdiak eta hondamendiak	Azpiegitura kritikoaren urrakortasuna eta oinarritzko zerbitzuak	Indarkeria sexista	Bideetako ezbehar-tasa
ESPORREN ARDATZAK	1 ardatza Herritarrekiko zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> Intelligentzia egiturak egokitzea, prebentzio aktiboan oinarritutako zerbitzu bat eskaintzeko 79 instrukzioaren garapena 	<ul style="list-style-type: none"> Informatikarekin, internetekin eta abarrekin lotutako delituei buruz aurkeztutako salaketak ikertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Herritarren Seguritasuna Babesteko Lege Organiko berrira egokitzea 	<ul style="list-style-type: none"> Erlazionatzeko moduen bilakera, teknologia berrien arloan presentzia bermatuz "Alderantziko 112" ekimen europarrera egokitzea 	<ul style="list-style-type: none"> Sistemen jarraipena bermatzeko, sistema erredundanteak ezartzea 	<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen indarkeriaren arloan prebentzioari eta arretari buruzko protokolo eta prozeduren azterketa, egin litezkeen hobekuntzak aurkitzeko Tratu txarrentzat arreta jaso duten emakumei buruzko jarraipen-txostenak egitea 	<ul style="list-style-type: none"> Erlazionatzeko era berriak garatzea eta teknologia berrien arloan presenteko egotea (web-orria, 011 telefonoa eta sare sozialak)
	2 ardatza Planifikazioa	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa-egitura osoan zehar, intelligentzia eredu integrala eta integratua ezartzea Mehatxu terroristaren aldizkako ebaluazioa Islamismo Erradikalaren aurkako plan estrategikoa 	<ul style="list-style-type: none"> Informazio-sistemen eta komunikazio-sareen osotasuna, konfidentziasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak sortzea Azpiegitura kritikoak babesteko jardueren jarraipena 	<ul style="list-style-type: none"> Ertzaintzaren Plan Estrategikoaren – Ortzimuga 2016- jarraipena Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren Plan Estrategikoa 2012-2016 garatzea Gorrotu-delituei buruzko datuak jasotzeko sistema mantentzea 	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Babes Zibileko Plana eguneratzea Uholde Arriskuari aurre egiteko Larrialdi Plan berezia egokitzea Urteko Neguko Bidezaintza Plan Estrategikoa 	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Azpiegiturak eta Oinarritzko Zerbitzuak Babesteko Planaren garapena-NEXPROTEC proiekt. Azpiegitura Kritikoetarako Laguntza Operatiboko Planak egitea 	<ul style="list-style-type: none"> "Berdintasun politikak bultzatzea" eta "Lan- eta familia-bizitza uztartzea" mahaiei Ortzimuga 2016 planaren barruan dagozkien ekintzak gauzatzea eta sustatzea. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan lan-taldeek izan dituzten ekipoak eta sistematika mantentzea 	<ul style="list-style-type: none"> Informazio-sistema inplementatzea, datuak jaso eta trukatzeko Bide-Seguritasuneko eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2015-2020 Salgai arrisksuak errepidetik edo trenbidetik garraiatzean dagoen istripu-arriskuari aurre egiteko Larrialdi Plan Berezia egokitzea.

ARDATZEN-ARRISKUEN ETA JARDUERA ILDOEN ARTEKO HARREMANEN TAULA

ARRISKUAK							
	Terrorismoa	Zibermehatxuak	Delinkuentzia	Larrialdiak eta hondamendiak	Azpiegitura kritikoaren urrakortasuna eta oinarritzko zerbitzuak	Indarkeria sexista	Bideetako ezbehar-tasa
3 ardatza Koordinazioa	<ul style="list-style-type: none"> Beste polizia-kidego batzuekin informazioa trukitzea 	<ul style="list-style-type: none"> Ziberdelinkuentziaren aurkako proiektu europarretan parte hartzea Europar Batasuneko FIDES proiektuaren eta ARIES proiektuaren jarraipena 	<ul style="list-style-type: none"> Epaileen, Ministerio Fiskalaren eta Ertzaintzaren Koordinaziorako lan-taldeko bilerak Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzorde mistoaren bilera Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arteko Lankidetzahitzarmena, Aurkezpenen eta Agerraldien "APUD ACTA" Bulegoko funtzionamendurako Ertzaintzak "EBko Ortzimuga 2020 ikerketa eta hobekuntzarako programan" parte hartzea. Udalekiko lankidetzahitzarmenak ezartzea Lagundu Plana garatzea, Euskadiko Segurtasun Pribatuak barne hartzen dituen sektore guztien arteko harreman efektiboa lortzeko. Tetra-ENBOR SAREA lankidetzahitzarmana AFIS protokoloa, udaltzainak EUDELekiko lan-taldeak, ikuskizunetako lokalekin eta jolas jarduerekin lotutako gaiak. 	<ul style="list-style-type: none"> ENBOR SAREA (Segurtasuneko Komunikazioen Sarea) komunikazio-eredua, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak Euskadiko segurtasun eta larrialdietako zentral operatibo guztiekin konektatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Sailen arteko lan-taldeak, babeserako jarduerak koordinatzeko eta gainbegiratzeko 	<ul style="list-style-type: none"> Saileko Talde Teknikoaren (STT) aldizkako bilerak Udalen, Ertzaintzaren, Mankomunitateetako ordezkarien eta Osakidetzaren arteko protokoloak, erakundeen artekoak 	<ul style="list-style-type: none"> Trafikoaren eta errepideen arloan, beste erakunde batzuekiko lankidetzak Udalizaingoek Trafiko Zuzendaritzarekin lankidetzan egindako bide-segurtasunari buruzko kanpainak

ARRISKUAK							
	Terrorismoa	Zibermehatxuak	Delinkuentzia	Larrialdiak eta hondamendiak	Azpiegitura kritikoaren urrakortasuna eta oinarrizko zerbitzuak	Indarkeria sexista	Bideetako ezbehar-tasa
4 ardatza Prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> Fenomeno terroristaren aurrean jarduteko-pautak batzeko prestakuntza-jardunaldiak Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - Terrorismo yihadista Udaltzaingoaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - Terrorismo yihadista: Martxoak 18 – uztailak 24 	<ul style="list-style-type: none"> Ziberakosoa prebenitzeko hitzaldiak ematea heziketa-zentroetan Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - Delitu informatikoak - Oinarrizko ikerketa 	<ul style="list-style-type: none"> Joko eta Ikuskizunen Unitateko eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako langileei prestakuntza-ikastaroak ematea, makinei eta joko sistemei buruz, eta material piroteknikoari buruz. Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - Zaintza eta jarraipena - Delinkuentziaren ikuspegia - Agintarien Babesa Udaltzaingoaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - Herritarren Babeserako Lege berria eta Zigor Kodea 	<ul style="list-style-type: none"> Larrialdiei eta Meteorologiari buruzko prestakuntzarako eta ikerketarako foro teknikoak garatzea Udalek antolatutako ikuskizunei eta jolas jardueri buruzko prestakuntza-ikastaroak Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - LAZLZ eguneratzea eta hobetzea - Ikuskizun piroteknikoaren arloko prestakuntza - Muturreko meteorologia segurtasunaren ikuspegitik - Birziklatzea Ingurumena Miñoiak - Birziklatzea Neguko teknikak 	<ul style="list-style-type: none"> Arrisku- eta mehatxu-mailaren arabeko segurtasun neurriei buruzko barruko prestakuntza (antolaketa-teknikak, orokorrak,...) Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - Polizia-ekintzaren eta – operatiboen planifikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> Genero indarkeriari buruzko informazio-hitzaldiak herritarrei eta profesionalen taldeei Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - Prebentzio psikoedukatiboa GI/EI - Emakueen aurkako indarkeriari buruzko on-line Prestakuntza, JABETUZ 	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitatetik kanpoko ikasleei eta prestatzaileei mugikortasun segururako hezkuntzari buruzko ikastaroak Maila guztietako bide-prestakuntza, mugikortasun seguruari begira. Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - Trafiko arloko dokumentoskopia

ARDATZEN-ARRISKUEN ETA JARDUERA ILDOEN ARTEKO HARREMANEN TAULA

	ARRISKUAK						
	Terrorismoa	Zibermehatxuak	Delinkuentzia	Larrialdiak eta hondamendiak	Azpiegitura kritikoaren urrakortasuna eta oinarrizko zerbitzuak	Indarkeria sexista	Bideetako ezbehar-tasa
5 ardatza Komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> Ideiak eta esperientziak partekatzeko helburuarekin, arlo horretako profesionalekin jardunaldiak antolatzea 	<ul style="list-style-type: none"> Hedabideen bitartez, informatikako delituei buruz informatzea edo/eta ohartaraztea. 	<ul style="list-style-type: none"> Segurtasun Publikoaren estatistikaren informazioa zabaltzea 	<ul style="list-style-type: none"> Euskalmeten irismen publikoa sustatzea, horretarako hedabideetan presenteko egonez. Sare sozialetan etengabeko presentzia Mugikorretarako APP aplikazioak egitea 	<ul style="list-style-type: none"> Enpresek, beren interesagatik edo daukaten arriskuagatik, horrela eskatzen badute, horiekin bilerak egitea 	<ul style="list-style-type: none"> Indarkeria hori ager dadin ekiditeko helburuarekin informatzea prebenitzeko, ezagutzera emateko, zabaltzeko eta arriskua azaltzeko Bileretara joatea eta Ertzaitzaren kolektiboan txertatzea Sailarteko Talde Teknikoaren dinamika- II Akordioa, aktak helaraziz. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko trafikoari buruzko informazioa jasotzeko smartphonetarako aplikazioa garatzea Mugikortasunaren eta bide-Segurtasunaren behatokia sustatzea

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Planaren ebaluazioa egiteko helburu estrategikoen betetze-mailari begiratzen zaio, eta ekintzek helburu bakoitzari dagozkion arloetan hobekuntzak lortzeko orduan daukaten eragina bilatzen da, eta ez egin diren ekintzen jarraipen kuantifikatua.

Helburu bakoitzaren betetze-maila eta plan honek jasotzen dituen ardurak neurtzeko, metodo eta estrategia partikularren bitartez ebaluatuko dira beren aurrerapen-maila zehazteko.

Ildo estrategikoetan lortutako emaitzen jarraipena egingo da, helburuen betetze-mailaren balizko desbideraketak hauteman eta aurreikusi ahal izateko eta beraz, inplementatutako ekintzetarako hobekuntzak identifikatu ahal izateko.

▪ JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

Jarraian daude Planaren inplementazioan betetze-maila zein den zehazten lagunduko diguten adierazleak.

Azken urte honetan eta lortutako datuak aztertzeke prozesu desberdinen ondorioz, hauteman dugu adierazle batzuek ez zutela ematen ekintzen betetze-maila ebaluatu ahal izateko behar zen informazio guztia. Hori dela eta, adierazle horien orde, beste batzuk jarri dira, aztertzen den aldian lortutako aurrerapenen informazio zehatza emango digutenak.

Hortaz, jarraipenerako erabili den sistema etengabeko ebaluazioan oinarrituta dagoenez, eta aurretik aipatutako hutsuneak eta beharrak hauteman direnez, jarraian datozen taulan ikus daiteke adierazle batzuetarako gaur egungo daturik ez dagoela; izan ere, adierazle horiek ekintza batzuek emaitzak edo aurrerapenak sortu dituzten ala ez zehazteko ez dutela balio uste izan da, eta horretarik adierazle horiek denboran zehar izan duten bilakaerari buruzko daturik ez da agertzen. Halaber, kontrakoa ere gertatzen da, hau da, adierazle batzuen hasierako baloreak ez dira agertzen, horiek berriki sartu direlako ekintzen betetze-maila neurtzeko metodoetan.

Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	2015/06/30eko kopuruak
1. ardatza: Herritarrentzako zerbitzua			
1.1 ildo estrategikoa: Ertzaintzan gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik			
1.1.1. Ertzaintzaren presentzia uniformatua gehitzea Euskadiko lurralde osoan	Unitateen hornidura-irizpideak berrikustea	Ertzaintzaren Z.	LPZ berria definitzea. 2015erako aurreikusita
	Administrazio-zereginak murriztea eta egokitzea		Gauzatzen
	Landa-ingurunean edo hirigunea ez den eremuan segurtasun-neurriak ezartzea		17 unitatetan sartuta
	53. jarraibidea mehatxu berriei egokitzea		Eginda (79 instrukzioa)
1.1.2. Segurtasun sentzazioa gehitzea	Prebentzio-zerbitzuko denbora handitzea	Ertzaintzaren Z.	%68,53 (Metatua)
	Prebentzioko denbora guztiaren gainean, Korriken kopurua handitzea		%15,59 (Metatua)
	Prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak sustatzea		
1.1.3. Konfiantza- eta lankidetzaren harremanak ezartzea herritarrekin eta arreta pertsonalizatua hobetu	Euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzea	Ertzaintzaren Z.	Gauzatzen
	Hizkera egokia erabil dadin sustatzea		Eskuz eginda
	Ertzain-etxeetako arreta pertsonalizatua hobetzea		73.274 pertsona artatuta
	Ertzaintzarekiko konfiantza-maila handitzea (Deustu barometro soziala)		5,06/10
	Balorazioari eta konfiantzari dagokionez, Ertzaintzari gai ematen dioten pertsonen kopurua handitzea (Euskobarometroa)		2014: %61 (Hurrengo inkesta 2015eko AZAROAN)
	Ertzaintzak ematen dituen polizia-zerbitzuen balorazioa handitzea		2014: 7,29/10 (Bi urtez behin)
	Ertzaintzari planteatzen zaizkion arazoaren konponketari dagokionez, gogobetetze-maila handitzea		2014: 7,02/10 (Bi urtez behin)
	Ertzaintzak laguntzeko daukan prestutasunari buruzko balorazioa handitzea		2014: 7,59/10 (Bi urtez behin)
	Ertzaintzaren profesionaltasunari buruzko balorazioa handitzea		2014: 7,4/10 (Bi urtez behin)
	Ertzaintzaren adeitasunari buruzko balorazioa handitzea		2014: 7,25/10 (Bi urtez behin)
	Ertzaintzaren hurbiltasunari buruzko balorazioa handitzea		2014: 7,17/10 (Bi urtez behin)
	Ertzaintzak emandako tratuari buruzko balorazioa handitzea		2014: 7,76/10 (Bi urtez behin)
	Segurtasun mailari buruzko balorazioa handitzea		2014: 6,88/10 (Bi urtez behin)
	“Komunikazioaren bidezko prebentzioa” hitzaldietako parte-hartzaileen kopurua handitzea.		2014-2015 ikasturtea: 18.000 parte-hartzaile
Komunikazioaren bidezko prebentziolari buruzko hitzaldietan parte hartzen dutenen gogobetetze-maila handiagoa lortzea.	2014: 4,42/1etik 5era 2015:4,27/1etik 5era		
1.2 ildo estrategikoa: Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea			
1.2.1. Herritarrak gaineratzea prozesuen zati nagusi gisa	Salaketak jartzeko hitzordua ezartzea eta polizia-zentroetako tramiteak malgutzea.	Ertzaintzaren Z.	Hitzordua eta kalkoa duten salaketak ezarrita

Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	2015/06/30eko kopuruak
	Biktimari ematen zaion arreta pertsonalizatuan hobetzea eta kasuen jarraipena egitea		Ertzaintzaren arabera, biktimen kopurua: 26.638 Ertzaintzaren arabera, biktimizazioen kopurua: 24.101 Ertzaintzaren arabera, delitu eta faltan guztizko kopurua: 40.960 2015: Istripu-txostenen kopurua: 2.493 (2.637,52 / milioi biztanleko)
1.3 ildo estrategikoa: Herritarrei ematen zaion arreta eta polizia- establezimenduen segurtasun-baldintzak hobetzea			
1.3.1. Europar Batasunaren "alderantziko 112" ekimenean sakontzea	112 SOS DEIAK twitterreko jarraitzaileen kopurua handitzea	LAEMko Z.	11.270
	Argitaratutako txio kopurua handitzea		14.481
	euskadi.net/112 webgunera egindako bisita kopurua handitzea		961.837
	Dei masiboen tratamendua		Programazioaren arabera, martxan dauden lanak
	Bidalketa masiboa eguneratzea (e-postak eta SMSak)		Datu-baseak eguneratzea eta berrikustea, bidean
	GIS korporatiboa zerbitzu operatiboetarako		Programazioaren arabera, martxan dauden lanak
1.3.2. Teknikari eskudunak gaitzeko agindua kudeatzea	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian teknikari gaitu akreditatuentzako prestakuntza-ikastaroak.	LAEMko Z.	1.181 tekniko akreditatuta
	Gaikuntzen kontrola		Urte honetarako helburu gisa jarri ziren planak berrikusita eta eguneratuta daude.
	Datu base publikoa sortzea		Argitaratuta
1.3.3. Autobabes planak bultzatzea eta larrialdi-zerbitzuei banatzea	Erregistratutako autobabes-planen kopurua handitzea	LAEMko Z.	1.296
	Homologatutako autobabes-planen kopurua handitzea		137
	Erregistro informatikoa egitea		Ezarrita
	Kanpoko Larrialdi Plan guztiak eguneratzea lortzea eta baita horien ezarpenak ere		KLPak jarrita eta ezarrita
1.4 ildo estrategikoa: Ikuskizun eta jolas-jardueretako lokalen segurtasuna hobetzea			
1.4.2. Toki-erakundeen eta joko eta ikuskizun Zuzendaritzaren arteko eskumenak banatzeko mekanismo argiak ezartzea	Ikuskizun eta Jolas Jardueren Lege berria	JI Z.	Eusko Jaurlaritzak Lege Proiektua onartu du 2014/7/1
	Eudelekin batera lan-taldeak sor daitezen bultzatzea, talde horietako bileretan gai komunei buruz hitz egiteko		3 bilera egin dira

Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	2015/06/30eko kopuruak
	Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalen lizentziatarako neurri zuzentzaile edo baldintzatzaileak aplikatzeko prozedura onartzea, Ikuskizun eta Jolas Jardueren Legearen arabera.		Eusko Jaurlaritzak Lege Proiektua onartu du 2014/7/1 Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jardueren Legea Eusko Legebiltzarrak onartzeko zain dago
1.4.3. Ikuskizun eta jolas-jardueretako ikusleen eskubideak argi zehaztea	Ikuskizun eta Jolas Jardueren Lege berria garatzeko araudia onartzea	JI Z.	Garatzeko araudiaren zirriborroa onartuta
	Erreklamazio-orrien araubide bakarra bultzatzea, eta horrela jolas jarduerak eta ikuskizun publikoak kanpoan uzten zituen aurreko sistema aldatzen da.		Gobernu Kontseiluak 142/2014 Dekretua onartuta (2014/7/1) Kontsumoari buruzko erreklamazio orrien erregimenari buruzkoa eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen kexei, erreklamazioei eta salaketei arreta emateko prozedurari buruzkoa.
	Horrelako ekitaldietako erabiltzaileen eskubide eta betebeharren gutuna ezartzea		Garatzeko araudiaren zirriborroa onartuta Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jardueren Legea Eusko Legebiltzarrak onartzeko zain dago
1.5 ildo estrategikoa: Indarkeria, arrazismo-espresioak, xenofobia eta, oro har intolerantzia-jarrerak desagerraraztea kirolean			
1.5.1. Eragile guztien sentsibilizazioa	Kirolean indarkeria, arrazismoa, xenofobia eta intolerantziaren aurka borrokatzea, eta horretarako EJKo Segurtasun Sailaren eta kirol arloko klub, sozietate anonimo eta federazioen arteko lankidetzak-hitzarmenak sinatzea.	JI Z.	Hitzarmena ACBko eta futboleko 1., 2.A, eta 2.B dibisioko klub guztiekin.
	Foroak bultzatzea eragile desberdinekin		Protokoloaren testua eta "Kiroleko portaera onei buruzko dekalogo" (publizitate kanpaina) izeneko protokoloa garatzeko jarduerak adosteko, aktore guztiekin bilerak eta foroak.
	Pertsona edo erakunde arduradunei zigortzea indarkeriako jarrerak, jarrera intoleranteak, eta abar, izategatik.		26 zehapen-espeditente hasita 26 zehapen-espeditente ebatzita
	Kirol-aretoan sartzeko debekua erabakitzea pertsona arau-hausle berrerorleentzat, neurri hori beteko dela ziurtatzen duten mekanismoak ezarrita.		0 debeku ezarrita
	Pertsona arau-hausleak berrezteko mekanismoak ezartzea.		3 bilera egin dira: 1- 1. eta 2. dibisioko futbol-taldeak 2- 2.B dibisioko futbol-taldeak 3.- ACBko saskibaloit-taldeak.
1.6 ildo estrategikoa: Lankidetzak eta koordinazioa kanpo-agenteekin			
1.6.1. Beste erakunde eskudun batzuekin lankidetzan aritzea eta bere lanak kanpo agenteekin koordinatzea trafiko eta errepideen arloan bide-segurtasuna kontrolatzeko eta zaintzeko duen eginkizuna betetzeko	Euskal udalekiko lankidetzak-mekanismoak ezartzea eta bultzatzea.	Trafikoko Z.	2014: Trafikoko eskumena hartzea 8 udaletan (Metatua)
	Errepideen Europar zeharreko Sarean trafiko-informazioa trukatzeko		Ekitaldi 1

Helburuak	Ekintzak	Arduraduna	2015/06/30eko kopuruak
	egiten diren erabaki eta ekitaldietan lankidetzan aritzea eta parte hartzea.		
1.7 ildo estrategikoa: Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa			
